

## UDAL ETA FORU ALDUNDIETAN... LANGILEOK BORROKAN

**Datorren otsailaren 28an, 4 orduko lanuztea deitzen dugu ELA eta LABek, lan baldintzen alde, enpleguaren defentsan eta zerbitzu publikoak indartzeko eskatuz**

Azken urteotan lanpostu ugari galdu da Udal eta Foru administrazioan. Hutsik geratu diren lanpostuak bete gabe eta zerbitzu osoak pribatizatuz, administrazio paralelo bat sortzen.

Gainera, betetzen diren lanpostuak, behin behineko langilez betetzen dira eta pribatizazioak okertzen ditu langileen lan baldintzak beti. Enpresari batzuek etekin ederrak lortzen dituzte eta herritarrok zerbitzu publiko horiek berdin edo garestiago ordaintzen ditugun bitartean.

Eremu publiko honetako langileen %36 behin-behinekotasun egoeran dago, EUDELEk berak aitortzen duenez, Udalhitz hitzarmenak, behin-behinekotasuna, gehienez ere %6ra mugatzen duenean.

Aipatu Udalhitz hitzarmena 2008. urtean sinatu zen azken aldiz 2008-2010 urteetarako. Hala ere 2018an bete gabe dago eta gainera, gure instituzioek ez dute berau betetzeko inolako borondaterik erakusten. Foru aldundietan ere ez dira betetzen sinaturiko hitzarmenak eta negoziazio kolektiboak blokeatuta jarraitzen du.

Ez dago benetako Negoziatio Kolektiborik sektorean. Nahiz eta administrazioak akordioetarako borondatea behin eta berriz aitortu hedabideetan, mahaietan esertzen direnean ez da inongo borondaterik ikusten. Aukera guztiak mugatzen dira, kasurik onenean, Madrilek agintzen duenera. Beraz, praktikan, badirudi Madrilek gobernatzeko dituela gure instituzioak.

Elkarlan hau izenpetzen dugun ELA eta LABek egoera hau salatu nahi dugu eta dei bat egin nahi diegu erakundeei ildo propio bat jorratzeko, herritarroi ematen zaizkigun zerbitzu publikoak bermatzeko eta hauek kalitatez emateko.

Horretarako, murrizketa politikak alde batera uztea eta zerbitzu publikoetan lanean dihardugun langileon lan baldintzak hemen erabakitzea ezinbestekoa da.

ELA eta LABek langileen indarrarekin, borrokari ekingo diogu eta besteak beste, hurrengo urratsak emanen ditugu:

- Udalhitzeko mahaietan ez dugu parte hartuko negoziatio berri batean, azken Udalhitzak betetzeko pausuak eta bermeak ematen ez diren bitartean. Era berean, dei egiten diegu bertan parte hartzen duten alderdiei beren jarrera eta borondateak publikoki argitu ditzaten: zergatik ez duten Udalhitz betetzen kudeatzen dituzten erakundeetan eta noiz beteko duten.
- Ildo berean, instituzioz instituzio negoziatio mahaiak zabaltzeko indarra egingo dugu. Gaurkoz, ez dago enplegua egonkortu eta sortzeko eta gure lan baldintzak hobetzeko beste esparrurik.
- Sektoreko langileak aktibatzeke lan egingo dugu eta datorren Otsailaren 28rako langile guztiak deitzen ditugu 4 orduko lanuztera.

### ALDARRIKAPENAK

- **Zerbitzu publikoak garatu.**
- **Suntsitutako Enplegu Publikoa berreskuratu eta egonkortu (behin-behinekotasuna <%6)**
- **Negoziatio kolektiborako eskubidea berreskuratu**
- **Galdutako eskubideak eta eros- ahalmena berreskuratu. Hitzarmenak bete.**
- **Ofentsibako negoziatio kolektiboak aktibatu instituzioetan.**

Guzti hau bideratu eta udal eta Foru Aldundietan indar korrelazioa irabazteko, **datorren OTSAILAREN 28an, 4 orduko lanuzte bat konbokatuko dugu.** Mobilizatuz, indarra erakutsiz, emango baitiogu gaur egungo egoerari buelta.

**Gure lan baldintzen defentsan. Gure hitzarmenen defentsan. Enplegu publikoaren eta kalitatezko zerbitzu publikoen defentsan.**

## EN LOCAL Y FORAL... TRABAJADORES Y TRABAJADORAS EN LUCHA

**El próximo 28 de febrero ELA y LAB llamamos a un paro de 4 horas, por las condiciones de trabajo, en defensa del empleo y el fortalecimiento de los servicios públicos**

En los últimos años se han perdido muchos puestos de trabajo en la administración Local y Foral. Quedándose vacantes sin cubrir y privatizándose servicios enteros, creando una administración paralela.

Además, los puestos se cubren con contratos interinos y las privatizaciones empeoran las condiciones laborales de las trabajadoras siempre. Algunos empresarios consiguen hermosos beneficios mientras la ciudadanía paga esos servicios igual o más caros.

El 36% de este sector público se encuentra en situación de eventualidad, como reconoce el mismo EUDEL, cuando el propio convenio Udalhitz la limita a un máximo del 6%.

El mencionado Udalhitz se firmó por última vez el año 2008 para los años 2008-2010. Sin embargo en 2018 todavía está sin aplicar y, además, nuestras instituciones no muestran ninguna voluntad para ello. Tampoco se cumplen los acuerdos firmados en las Diputaciones y la Negociación Colectiva continúa bloqueada.

No hay una verdadera Negociación Colectiva en el sector. Aunque las administraciones declaran una y otra vez a los medios de difusión su voluntad para llegar a acuerdos, cuando se sientan a la mesa no se ve ninguna voluntad para ello. Todas las opciones se limitan, en el mejor de los casos, a lo que ordena Madrid. Así que, en la práctica, parece que es Madrid quien gobierna nuestras instituciones.

ELA y LAB, firmantes de esta dinámica, queremos denunciar esto y llamamos a las instituciones a recorrer un camino propio, para garantizar y ofrecer con calidad los servicios que se nos ofrece a la ciudadanía.

Para ello, es imprescindible dejar a un lado las políticas de recortes y decidir aquí las condiciones laborales de quienes trabajamos en los servicios públicos.

ELA y LAB con la fuerza de trabajadoras y trabajadores iniciamos una lucha y, entre otros, daremos los siguientes pasos:

- No tomaremos parte en una nueva negociación de la mesa de Udalhitz, hasta que se den pasos y garantías de cumplimiento del mismo. Del mismo modo, llamamos a los partidos presentes en ese marco a que aclaren públicamente su posición y voluntades: ¿por qué no aplican Udalhitz en las instituciones que gestionan y cuándo lo harán?
- En el mismo sentido, haremos fuerza para que se abran las mesas de negociación institución por institución. Hoy día no hay otro ámbito en el que podamos estabilizar y crear empleo y mejorar nuestras condiciones laborales.
- Trabajaremos para activar las plantillas del sector y llamamos a todas las trabajadoras a secundar un paro de 4 horas el 28 de Febrero.

### REIVINDICACIONES

- **Desarrollar los Servicios Públicos**
- **Recuperar y estabilizar el Empleo Público perdido (eventualidad <6%)**
- **Recuperar el derecho a la Negociación Colectiva**
- **Recuperar los derechos y poder adquisitivo perdidos. Cumplir los convenios.**
- **Activar una Negociación Colectiva ofensiva en las instituciones.**

Para abrir camino a todo esto y ganar correlación de fuerzas en ayuntamientos y Diputaciones, **hemos convocado un paro de 4 horas el día 28 de FEBRERO**. Porque le daremos la vuelta a esta situación movilizándonos y demostrando fuerza.

**En defensa de nuestras condiciones laborales. En defensa de nuestros convenios. En defensa del Empleo Público y de unos Servicios Públicos de calidad.**